


LAMINAK



LAMINAK

*Laminak gu gara gaur, ez gaitue ezagutzen
Antzinako ohiturak gabiltz gu betetzen.*

Herriak behar gaitu ezin gara ahaztu
Zer dala ta apurtu danatara alkartu
Hemendik aurrera gu lagundu,
Danontzako degu eginkizun

*Laminak gu gara gaur ez gaitue ezagutzen
Antzinako ohiturak gabiltz gu betetzen.*

Halan agertzen gara une honetan ba,
Aratuste ondoren ikusiko gara,
Herrien alde guk lan egiten
Bizi garalako irabazten.